



TOLOSAKO  
UDALA

## ALKATEAREN DEKRETUA

Zk.: 2018 / 281

**Tolosako Udalean, 2018ko otsailaren 1ean, OLATZ PEON ORMAZABAL, Tolosako Udaleko Alkate-lehendakariak emana.**

Junta Gobernuak joan den urtarrilaren 16an, Idazkaritzako administrari bat zerbitzu eginkizunetan betetzeko premiazko deialdia onartu zuen. Behin instantziak aurkezteko epea amaitu ostean, izangaien behin-behineko zerrenda onartu, epamahaia izendatu eta azterketa eguna finkatu behar dira.

Hortaz, Alkatetza honek, legeak emandako eskumenak kontuan hartuta,

### ERABAKI DU

**1.- Ontzat jotzea deialdian esku hartzeko onartuak eta baztertuak izan direnen behin-behineko zerrendak, honakoak hain zuzen ere:**

- Miren Lazkano Etxabe
- Miren Gentzane Otermin Navarro

Interesdunek, 3 egun balioduneko epea izango dute, zerrendak Udaletxeko iragarki taulan eta web orrian ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)) agertu eta gero, haien aurkako erreklamazioak aurkezteko edo okerrak zuzentzeko.

Erreklamaziorik ez badago, zerrendek behin betikotasuna hartuko dute automatikoki. Erreklamaziorik baldin badago, haiek onartu edo baztertzeko erabakiarekin batera behin betiko zerrendak onetsiko dira. Horiek ere, argitaratuko dira Udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian.

**2.- Izendatzea lehiaketa oposizioko ariketak kalifikatuko dituen Epaimahaia:**

#### **LEHENDAKARIA**

Begoña Garmendia Vazquez, Udaleko Idazkaria

#### **MAHAIKIDEAK**

Karmele Contreras Goikoetxea, Udaleko Admnistrazio orokorreko teknikaria.

Antton Rivero Urbistondo, Udaleko Giza baliabideetako teknikaria.

Gurutze Zubeldia Goenaga, Udaleko admnistraria.



TOLOSAKO  
UDALA

**IDAZKARIA**

Antton Rivero Urbistondo, Udaleko Giza baliabideetako teknikaria.

**3.- Azterketa eguna finkatzea, era honetan:**

Oposizioko ariketa **2018ko otsailaren 7an (asteazkena) izango da, Tolosako Udaletxean, Plaza Zaharra 6, A, goizeko 9,00etan.**

**Tolosan, 2018ko otsailaren 1ean**

ALKATEA

**Nire aurrean,  
IDAZKARIA**

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vazquez